

HITZ-EKIN

“ULERMENAREN MUGAZ GAINDITUZ”

Gure ideia aplikazio bat da, menperatzen ez duzun hizkuntza bat ulertzen lagunduko zaituena. Adibidez, Japonieraz emandako hitzaldi batera bazoaz, aplikazioak entzuten duena jasoko du eta itzulita bueltatuko dizu pantailan idatziz, testu baten bidez, edota audioen bidez.

Aplikazio hau, oso baliagarria da entzumen- eta ikusmen-desgaitasunak dituztenentzat. Ikusmen-desgaitasunak dituztenek, audio baten bidez entzun ahal izango dituzte hitzaldiak eta entzumen-desgaitasunak dituztenek, aldiz, pantailan irakurgai. Horrela, hitzaldia ondo ulertu ahal izango dute.

